

# B

BARREN

TOKIKOM



**“Egunean lau-bost ordu eskaintzen dizkiot biolinari”**

Olatz Ruiz de Gordejuela biolin-jotzailea

# LA SALLE AZITAIN IKASTETXEA

2013-2014 ikasturterako eskaintza

**BATXILERGOAK (A eta D)**

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA / GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

**Badugu  
ikasteko  
leku bat  
zuretzat!**



**La Salle**  
Eibar



943 121 698

maiatzaren  
2tik 14ra

## ENJOY SUMMER

Jolastuz eta gozatuz  
ikasi ingelesa, alemana eta frantsesa  
**ELGOIBARREN**

# ILS

Industry Language Services

Informazioa, matrikula eta ordategiak

943 744 040

[www.ils.es](http://www.ils.es)

IMHn gaude



5 urtetik aurrera, ekainaren 24tik uztailaren 26ra eta ekainaren 24tik uztailaren 12ra bitartean,  
goizeko 10:00etatik 13:00etara. Ingelesa, frantsesa eta alemana,  
modu naturalean ikasi, aire librean, jokoen, abestien, ipuinen eta eskulanean bitartez

## 2013/2014 IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEA ZABALIK

HAURRAK ETA GAZTEAK – INGELESA, FRANTSESA ETA ALEMANA

HAURRAK 4 urtetik aurrera GAZTEAK 12 urtetik aurrera

Hizkuntzan erabat barneratzekoak, %100 ingelesez, frantsesez edo alemanez.  
Cambridge azterketen prestakuntza: KET, PET eta FIRST CERTIFICATE



Noemi  
Otegi

Kaixo, Ainara.

BARRENetik galdezka datozkigu, ia bertan idazten jarraitu nahi dugun edo beste batzuei irekiko dizkiegun ateak. Hitz egin genuen bezala, guk geure urteak eman ditugu eta bidezkoa da beste batzuei lekua uztea. Horrela beharko luke gizarteko beste eremu askotan ere, esperientziak bizi, gozatu eta ondorengoei lekua utzi.

**“Muxu bat irakurri gaituzuen guztioi,  
baita irakurri ez gaituzuenoi ere”**

Atal honetan agerian utzi ditugu askotan pentsatu eta sentitzen ditugunak, jaso izan ditut dei bat baino gehiago idatzitakoari buruz hitz egiteko, kalean batek baino gehiagok ere eman dit bere iritzia, eta etxean ere zeresana izan dute gure atal hauek. Gai asko ikutu ditugu, eta beste hainbeste geratzen zaizkigu orain irakurtzeko. Aurrerantzean bion arteko elkarrizketak, gure artean geratuko dira, Ainara, horrek ere badauka bere xarma, eh!

Mila esker, BARREN, utzi diguzun tartearengatik. Muxu bat irakurri gaituzuen guztioi, baita irakurri ez gaituzuenoi ere, hala nola kalean zeuen iritzia eman dizkiguzuenori ere, eta animo aurrerantzean etorriko zareten guztioi. Guztiok izan gaitzke BARREN. Hala bedi!



Ainara  
Sedano

Kaixo eta agur, orduan, oraingo honetan zutabe honetatik zure zutabera, Noe! Hala bedi! Guk jada badaramatzagu 1.400 karaktere inguruko solasaldi batzuk gure bizkarrean, eta, urte batzuek ere bail. Nire aldetik, bai nire zutabekide Noemiri eta baita BARRENI ere eskerrak ematea besterik ez zait geratzen; lehenik eta behin, idazteko aukera emateagaitik, sekula mugarik ez ipintzeagatik eta askatasun osoz idaztea baimentzeagatik. Guzti honengatik, mila esker, bihotz-bihotzez, ez baitut uste gure ahotan hainbestetan dabilgun adierazpen askatasun hori horren zabaldua dagoenik, oso-oso baliotsua izan arren.

**“Mila esker, eta etorkizun oparoa BARRENI  
eta euskarazko beste argitalpenei”**

Hurrengo zozo-bele izatera animatzen zaituztet, eta BARRENI... *“urte askotarako!”* da desio diodana. Espero dut egiten duzuen lan honekin aurrera jarraitzeko aukera izatea; nik gustura irakurriko ditut astero-astero zuek etorkizunean idatziko dituzuenak. Eta edonolako laguntzarik behar izanez gero, badakizue non gauden gu biok. Eta Noe... aurrez-aurre gusturago ikusiko zaitut zutabetik zutabera baino, beraz... orain, aurrez aurre kontu-kontari ordutxo batzuk emateko zitaren zain geratzen naiz!

Mila esker, berriz ere, eta etorkizun oparoa BARRENI eta euskarazko beste argitalpenei.



**elgoiBARREN.net**

**3.000 bisita astean!**

**Animatu eta jarri zure negozioaren iragarkia**



**Eska ezazu aurrekontua**

**943 744 112 telefonora deituz**

**[edobarren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:edobarren.publi@elgoibarkoizarra.com)**

# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,  
Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil HIZKUNTZA  
ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA  
Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz  
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue  
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel  
Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano,  
Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen  
Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose  
Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele  
Sarriguarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez,  
Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire  
Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA  
4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92  
ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### XX. Jose Gurrutxaga Krosa

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den igandean, apirilaren 21ean, ospatutako XX. Jose Gurrutxaga Krosa antolatzen lagundu zuten guztiei: Iturri taberna, Usua kafetegia, Jai Alai, Arkupe, Tantaka, Mahats ardote-gia, Ametsa kafetegia, Larre, Orijinal Komunikazio Grafikoa eta batez ere Elgoibarko Udala, Elgoibarko Udal Kirol Patronatua, Goki erreformak, Alkorta, Egile, Danobat, Kutxa, Beristain logistika banaketa, Diario Vasco, Biena harozte-gia, Elgoibarko Lagun taldea, Egotoki, Gare Radio Club.

Bestalde, eskerrik beroenak parte hartu duten neska-mutilei.

Datorren urtean, apirilaren 6an ospatuko den XXI. Jose Gurrutxaga Krosa antolatzen laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

Jose Gurrutxaga Krosa Batzordea

### Elkartasun mezua

Hekimen Euskal Hedabideen Elkarteak (BARREN Hekimeneko partaide da) elkartasuna agertu nahi dio Lander Arbelaiz Argia aldizkariako kazetariari, AskeGunea husteko operazioaren barruan jasotako tratua dela eta.

Hekimeneko kide sortzaileetako bat da Argia aldizkaria, eta Hekimenen helburuetako bat da euskal hedabideen presentzia eta eragina handitzea gizartean. Horretarako, ezinbestekoa da gero eta informazio kalitatezkoagoa eskaintzea. Hekimenen ustez, Lander Arbelaiz informazio zuzena emateko ahalegin betean ari zen Ertzaintzak, eskuan zeukan akreditazioa kon-tuan hartu gabe, lurrera bota, astindua eman eta bertatik atera zuenean.

Hekimenek, gainera, guztiz ezegokizat jotzen du Ertzaintzako buruek hartu zuten erabakia kazetariak gune itxi eta bereizi batean zedarritzeko. Kazetarien oinarizko eskubideetako bat da informazioa ahal bezain hurbilen eta, batez ere, nahi duten ikuspuntutik eman ahal izatea. Hori da kazetaritza. Hori da gure lana.

Hekimen, Herri ekimeneko  
euskal hedabideen elkarte

## OHARRA

Maiatzaren 1eko jai eguna dela-eta, datorren barixakuan ez dugu **BARREN** astekaria kaleratuko, eta maiatzaren 1etik 3ra bitartean **BARREN**eko erredakzioa itxita egongo da. Hurrengo alea maiatzaren 10ean jasoko duzue.

# Arte eszenikoen agerraldia



**A**rte eszenikoen agerraldia egingo du Taupada antzerki taldeak maiatzaren 3an, Elgoibarko Herriko Antzokian. Antzerkia, dantza, musika eta bertsoak uztartuko dituzte lan honetan, esketx laburretan banatuta. 22:00etan hasiko da saioa eta ordu eta erdiko iraupena izango du. Sarrerak salgai daude dagoeneko Pitxintxun, sei euroan. Dena dela, egunean bertan ere erosi ahal izango dira sarrerak, Herriko Antzokiko leihatilan bertan.

## 'Taupadaren besarkada'

Ikuskizunaren ostean, 36ko gerra ondorenean Elgoibarren antzerkigintzan jardun zuten lagunak omenduko dituzte. Grupo artístico elgoibarrés Compañía Petachos izena zeukan taldeak, eta bizirik dauden taldekide guztiei emango diete *Taupadaren besarkada*. Dena dela, taldeko kide guztien izenak ekarri dituzte gogora: Miren Vallejo, Maite Vallejo, Itziar Ajuria, Conchita Armendia, Patxi Lizarralde, Angel Iriondo, Jesus Mari Etxeberria, Maria Angeles Kortabitarte, Ion Arrieta, Julita Gorrotxategi, Alicia Marcos, Mari Sol Gurrutxaga, Dolores Iriondo, Mari Ezenarro, Luzia Zabala, Mari Karmen Araolaza, Juanjose Araolaza, Jasone Vallejo, Pako Juaristi (†), Jose Juaristi (†), Tomas Garcia (†), Carmenchu Iriondo (†), Jose Zubiaurre (†), Dimas Gil (†), Miguel Sanchez (†), Benito Saez (†), Mari Terre Elkoru-Iribe (†), Angel Riaño (†), Antonio Santolaya (†), Luis Santolaya (†), Jesus Bilbao (†), Elena Opakua (†), Manolo Rementería (†), Agustin Arriola (†), Ines Ecenarro (†), Ricardo Araolaza (†), Don Ramon Ormaetxea (†), Jose Antonio Estibaritz (†) eta Claudia Lecea (†).

Antzezlan asko egin zituen talde elgoibartarrak garai hartan: *Mi Chica* eta *Mis Flan* umorezko musikalak, *La Esclava de Faviola* drama, *Kermor* eta *La Plasmatoria* tragikomediak, *Ama Euskara* olerki eszenifikatua, *El Caserio* eta *Los Claveles* zarzuelak, *Aitona* eta *Biloba*, *Los Tres Robinsones*...

# ANGELO IRIONDO

PETACHOS KONPAINIAKO KIDE OHIA

“Geuk egin genuen  
euskarazko  
lehen obra  
Bilbon, 1956an”



**Saltsa guztietako perrexila izan dela beti eta gaur egun ere halaxe izaten jarraitzen duela aitortu du Angelo Iriondok. 30 urtez izan zen Mugertza krosetako esataria, eta gaur egun Jose Gurrutxaga krosari jartzen dio ahotsa. Abesbatzan ere abestu izan du, eta antzerkian ere ibilitakoa da, eta Compañía Petachos taldearekin hamaika obra antzeztu izan ditu. Bera izango da maiatzaren 3an *Taupadaren besarkada* jasoko duten horietako bat.**

**‘Compañía Petachos’ taldeko kideok omenduko zaituztete Taupada-koek. Nola hartu duzue ekimena?**

Ondo! Euren ospakizun baten barruan sartu dute omenaldia, eta pozik!

**Nola gogoratzen duzu ‘Compañía Petachos’ taldearekin antzerkigintzan ibilli zinen garai hura?**

Elgoibarren beti egon da antzerkirako joera, gerra aurretik ere bai. Artelanak, ikuskizunak edota kultura alorreko ekitaldiak beti izan dira. Gure erreferentzien arabera, Gerra aurretik ere *El Caserío* obra antzeztu zuten Angel Riañok, Valle eta beste batzuek. Txistulariak eta dantzariak egon diren herrietan kultura mugimendua egon izan da beti. Gure kasuan, batzuk kantuan ibiltzen ziren, beste batzuk dantzan, besteak beste lan batzutan... bat egin genuenean *Petachos* izena jarri genion taldeari, pusketa desberdinekin osatu genuelako.

**Zein zailtasun zenituzten garai hartan antzerkigintzan jarduteko?**

Francok eta Elizak bat eginda, haien aginduz, emakumezkoak eta gizonzezkoak ezin ziren batera ibili taldeetan. Eta jakina, zorionez edo zoritarrez, antzerki obrarik onenak mistoak izaten dira. Gizonzezkoak Luistarrak ginen, Gonzaga kongregaziokoak eta emakumezkoak Mariatarrak edo Mariaren alabak, eta dena aparte egin behar izaten ge-

nuen. Denborarekin hasi ginen elkarrekin antzezten.

**Zeintzuk ziren herrian zuen antzokiak?**

San Bartolome parrokiak bazeukan lokal bat, eta han sarritan antzeztu genuen. Eszenatokia zeukan, eta 200 bat jarleku kabitzen ziren ikusleentzako. Maalako eskolako beheko solairua ere erabiltzen genuen, eta gogoratzen dut jaiegun batean lau emanaldi egin genituela: goizean, eguerdian, bazkalostean eta iluntzean. Merkatu Plaza zaharreko arkupean ere sarri egiten genuen antzerkia. Arraindegia zeuden ibai aldera, eta gune hura erabiltzen genuen. Arraindegien gainetik lehentasuna geneukan! Errosario kaleko zine zaharra ere erabiltzen genuen, eta gure aurretik Petraren teatroa esaten zioten lokalean ere antzeztu zuten. Odeon antzokia zabaltzea handia izan zen guretzat. Santolaia familiari eskerrak eman behar dizkiogu, oso ondo hartzen gintuztelako beti eta Odeon erabiltzeko erraztasun guztiak ematen zizkigutelako. Pena hartu genuen Odeon bota zutenean.

**Aisialdirako ez ezik, beste helburu batzuekin antolatzen ziren lehen antzerkiak, ezta?**

Bai. Gehienetan benefizientziazko ekitaldiak izaten ziren: ospitalerako mantak erosteko, herriko gaixoren bati laguntzeko... Gure poltsikorako ez genuen dirurik ateratzen, beti izaten zen norbaiti laguntzeko dirua

bildu beharra. Denetarik egiten genuen: antzerkiak, zarzuelak... Pierloti frantsesaren *Ramuntxo* antzezlanaren ere egin genuen euskaraz. Gehienetan umorezko obrak egiten saiatzen ginen, ondo pasatzeko antzerkiak.

#### **Zein hizkuntzatan aritzen zineten?**

1956. urte inguruan Elgoibarko Petachos taldeak egin zuen Bilbon es-treinako antzezlanaren euskaraz. Edozein antzezlan aurkezteko testua Poliziak ikusi behar izaten zuen lehenengo eta haren oniritzia behar izaten genuen antzezteko. Gai politikoak debekatuta zeuden, eta orduan dena hartzen zuten politikatzat. *Aitona eta biloba* izeneko obra egin genuen Arriaga antzokian. Pako Juaristi zen aitona, eta Ion Arrieta biloba. Maria Angeles Kortabitartek eta nik egin genuen gurasoen papera. Aita eta semea haserre zeuden, eta bilobaren papera erabiltzen zuten aitona bigundu eta familia adiskidetzeko. Abestu ere egiten genuen obran, eta Mitxelena, Lasarte edota Uztapide bezalako bertsolari handiek ere hartu zuten parte eta Arriaga antzokia zutik jarri genuen denon artean. Euskaraz jarduteko zailtasun handiak zeuden. Gogoratzen du, t behin, Getariako San Anton jailetan Guardia Zibilek bertsolariei galdetu zieten ea zer abestu behar zuten, eta haiek ez zekitelako erantzun zutenean ezin zuten ulertu! Norbaitek azaldu zien bertsolariek inprobisatu egiten zutela eta onartu zuten, baina garai hartan jendaurrean esan beharreko guztia poliziek gainbegiratu behar izaten zuten. Gero, inprobisatu ere egiten genuen batzuetan: Valle artista zen testuak momentuan asmatzen!

#### **Elgoibarren bazegoen garai hartan antzerkiak ikustera joateko ohitura-rik?**

Bai. Ongintzako obrak izaten zirenez, herritarrek ondo erantzuten zuten. Baina horrez gain, ekitaldi profesional asko egoten zen Elgoibarran. Antonio Machín bera ere etorri zen Odeonera, eta zarzuela konpainia profesionalak ere bai. Donostian eta Bilbon *Las chicas del tren* obrak sekulako arrakasta izan zuten, eta berehala ekarri zuten Elgoibarrera ere! Bazegoen zaletasuna, bai!

#### **Noiz eta nola utzi zenuten 'Compañía Petachos'?**

Ez nuke jakingo esaten noiz utzi genuen. Mugimendu hura ufalen modukoa izan zela esango nuke, eta ufaletan ura gastatzen den bezala gastatu zen gure jarduna. Batzuek abesbatzan jarraitu zuten, beste batzuk dantzan, eta nik saltsa guztietan jarraitu nuen! Saltsa guztietako perrexila izan naizela esango nuke: kantuan, txistek kontatzen... Edozertarako prest azaltzen nintzen. Euskaraz hitz egiteko atrebentzia gutxi egon da, eta euskaraz egin behar zenean beti nitaz akordatzaren antolatzaileak. Mugertza krosean 30 urte egin nituen hizlari, ajedrez biziduna antolatu zutenean ere neu ibili nintzen esatari, ajedrezaz ezer gutxi nekien arren, eta orain Jose Gurrutxaga krosean dihardut! Eta ez diezadatela hori kendu ahal dudana bitartean behintzat! Umeen lasterketa hori neure-neurea dut, eta izugarri gozatzen dut.

**Ainhoa Andonegi**



1958ko argazkia. Jose Guridi konpositore euskaldunaren 'El Caserio' zarzuela antzeztu zuen Petachos konpainiak Odeon antzokian. Jose Juaristi zena arduratu zen ordu hartan obraren zuzendaritzaz, eta herritar askok lagundu zioten antolakuntzan. Musika arloan Felix Lodoso eta Kontxita Santolaia izan ziren zuzendariak, eta dekorazio arduraduna Jose Antonio Estibaritz izan zen. Obrako parte hartzaileak hauek izan ziren: Maria Angeles Kortabitarte, Itziar Ajuria, Mari Karmen Araolaza, Mari Karmen Iriondo, Angela Zabaleta, Migel Sanchez, Pako Juaristi, Tomas Garcia, Jose Zubiaurre, Angel Iriondo, Angel Riaño, Jose Mari Ruiz, Bittor Arrizabalaga, Benito Saez, Eduardo Irusta, Sabin Beristain, Karmelo Sanz, Ignacio Arizmendiarieta eta Rikardo Araolaza.

## Herriko ostalaritza sustatzeko asmoz, pintxo lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak biharko eta etzirako

Herriko tabernari guztiek parte hartuko dute lehiaketan

**J**oan zen urteko esperientzia ikusita, bigarren urtez pintxo lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak, asteburu honetarako. Herriko establezimendu guztiei eman zieten parte hartze-ko aukera, eta Udalak jakinarazi du herriko taberna guztiek erabaki dutela parte hartzea: Luzaide, Aitz-beltz, Txirristaka, Toki-Alai, Lagun-Betikoak, Uztargi, Chow, Ormola, Arrats eta Menditxo. Bihar eta etzi izango da espreski lehiaketarako sortutako mokadu txikiak dastatzeko aukera (12:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik 21:00etara).

Epaimahai teknikoak hiru pintxo sarituko ditu: txapela, garaikurra eta diploma jasoko ditu irabazleak, bigarren sailkatzen denak garaikurra eta diploma eskuratuko ditu, eta hirugarrenak diploma. Horrez gain, baina, sari berezi bat ere izango da: herritarren saria. Herritarrek eurek bozkatuko dute. Taberna bakoitzean kutxa bat egongo da, tabernariak emandako kupoian nor bere balorazioa idatzi eta hantxe husteko. Boto guzti horiek batu eta zenbatuko dituzte gero antolatzaileek, eta pintxorik estimatuena sarituko dute. Bozketa horretan parte hartzen duten guztien artean, zozketa bat ere izango da. Irabazleak 10 euroko hamar bono jasoko ditu, lehiaketan parte hartu duten tabernetan gastatzeko.



*lazko argazkia. Argazkian irabazlea falta da.*

### Estreinako irabazleak

laz, Txirristaka tabernan prestatutako bakailao, piper, baratxuri eta kipulaz egindako pintxoak irabazi zuen epaimahaiaren saria, eta Luzaide tabernak herritarrena.

## Deban bizi diren elgoibartarrak bazkaltzeko elkartu ziren hilaren 20an



Halako kontuetan ohi legez, parranda batean sortu zen Deban bizi diren elgoibartarrak batzeko ideia. Fernando Ansola eta Joseba Gorosabelen kontua izan zen. Pentsatu zuten polita litzatekeela bazkari batean denak batzea, baina hortxe gelditu zen kontua, harik eta Zigor Cornejo Debara iritsi zen arte. Cornejok eman zion forma ideia hari, eta halaxe, eguna, ordua eta lekua zehaztu zituzten: apirilaren 20an, Debako Bordatxo jatetxean. Deialdia egin, eta 40 bat elgoibartar batu zitzaizkien. Ez dira gutxi lehenengo ahaleginerako. Hala ere, Deban elgoibartar gehiago bizi direla-eta, hurrengo urtean berriro batzekotan gelditu dira.



## Izena **Ane Odria**



Unibertsitate Hezkuntzako Karrera Bukaerako Sari Nazionala jaso du Ane Odria elgoibartarrak. 2009-2010. ikasurtean estatuko unibertsitatearen batean karrera bukatu zuten ikasle onenak nabarmendu dituzte sariketan. Guztira, 54 sari nazional, 54 aipamen eta beste horrenbeste akzesit banatu dituzte. Karrerako batz besteko nota hartzen dute batez ere kontuan, baina karreran zehar egindako bestelako merezimenduak ere hartzen dituzte aintzat: meritu akademikoengatik jasotako bekak, sariak, mintegi, kongresu eta ikerketa proiektuetan parte hartu izana... Odriak Euskal Filologia ikasketak egin zituen Gasteizen.

## LABen mobilizazioak **Metalgintza**

Adegiko ordezkariak Rodisara bisitan zetozela baliatuta, LAB sindikatuak elkarretaratzea egin zuen martitzenean enpresa aurrean, metalgintzako negoziozko mahaia bizi duen "blokeo egoera" salatzeke. Era berean, eguaztenean, kotxe karabana egin zuten Debabarrenako metaleko delegatuek Eibar, Soraluze, Elgoibar eta Mendaro artean. Metalgintzako hitzarmena eskatzeaz gain, maiatzerako deitu duten grebarako deia egiteko baliatu zuten kotxe karabana. Greba egunak zeintzuk izango diren ez dute zehaztu oraindik, baina LABek jakinarazi du prentsa ohar baten bidez aurrez hitzartutako mobilizazio egutegia jarraituko duela.



Martitzenean, Rodisa enpresa aurrean egin zuten elkarretartzekoa da argazkia.

## **Stop Desahucios-ekoek informazio mahaia jarriko dute zapatuan**

Stop Desahucios taldekoek mahaia informatiboak jarriko dute bihar, azken zapatuko ferian. Merkatu Plazako sarrera ondoan jarriko dute mahaia, eta hantxe izango dira 10:00etatik 14:00etara, informazioa banatzen eta kamisetan saltzen, talderako finantzazioa lortzeko. Euria eginez gero, King Kong-eko aterpean jarriko dute mahaia. Taldeko kideekin harremanetan jarri nahi duenak 627 934 675 telefonora deitu dezake.

## **Aldi baterako egonaldiak zaharren egoitzetan**

Zabalduta dute udan zaharren egoitzetan egonaldiak egiteko Diputazioak antolatzen duen programarako eskabideak aurkezteko epea. Uztailera aldi baterako egonaldiak egin nahi dituztenek maiatzaren 17ra arteko epea dute eskabideak aurkezteko. Abuztuko aldi baterako egonaldiak egin nahi dituztenek maiatzaren 31ra arteko epea dute, eta irailean egin nahi dituztenek ekainaren 14ra artekoa. Udalak jakinarazi du epea kanpo jasotzen dituzten eskabideak libre dauden plazan araberaren beteko dituztela.

## **'Gatazka eta osasuna' izenburuko hitzaldia maiatzaren 4an**

Gabriel Ruiz Garcia sendagileak *gatazka eta osasuna* izenburuko hitzaldia eskainiko du maiatzaren 4an, Inazio Bereziartua musika eskolan, 18:00etatik aurrera. Anateusk eta Gabrielen Lagunak taldeek antolatu dute hitzaldia, eta sarrera doan izango dela aurreratu dute. Gabriel Ruiz Garcia medikuntza eta kirurgian sendagilea da, Naturopatian doktoratua. Akupunturan diplomaturia ere bada Ruiz Garcia, eta homeopatia, osteopatia eta naturopatiari buruzko hainbat ikerketetan parte hartu du. Jesus Bilbao moderatuko du hitzaldia.

## Erretratu zaharra



**1970**

Oihana Agirregomezkortak ekarri du erretratu hau BARRENERA. 1970eko jaietan aterata dago, San Bartolome egunean, hain zuzen ere. Garai hartan argazkilariek ohitura handia zuten dekoratu desberdinekin herriz-herrri ibiltzeko, eta Elgoibarrera ere sarri etortzen ziren. Hirukote honek ere atera zuen argazki bat, festa giroan.

**Ezkerretik eskumara:** Jose Inazio Korta, Rafa Urrusolo eta Pedro Agirregomezkorta.

**1973**

1973. urteko argazki hau Nekane Etxeberriak ekarri du BARRENERA. Igeldon aterata dago argazkia, Donostian. Argazkian azaltzen den lagun talde hori goizean goizetik joan zen trenez Donostiara egunpasa, eta tartean, Igeldo ere bisitatu zuten:


**Goian:** Mari Flori Mancebo eta Rosa Zubizarreta. **Behean:** Rosadina Martinez, Jean Claude Libouban eta Nekane Etxeberria.





## 653 lagunek hartu zuten parte Elgoibar Ikastolak antolatutako Jose Gurrutxaga krosean

**E**lgoibarko kaleak horiz jantzi ziren domeka goizean. Jose Gurrutxaga krosa antolatu zuen Elgoibar Ikastolak, eta goizean goizetik antxitxika jardun zuten neska-mutilek kalean. 653 lagunek hartu zuten parte. Ume, gazte eta heldu, denek erakutsi zituzten korrikarako dohaiak. Argazki gehiago eta sailkapenak ikusteko: [www.ElgoiBAREN.net](http://www.ElgoiBAREN.net) helbidean.



## Tenis eta padel txapelketak antolatu ditu 40-15 elkarteak

14 urtetik gorakoek hartu dezakete parte

Tenis eta padel txapelketak antolatu ditu 40-15 elkarteak, Kirol Patronatuaren laguntzaz. Padel txapelketak binaka jokatuko dira, eta tenis txapelketa, berriz, bakarkako izango da. 14 urtetik gorako edonork hartu dezake parte. Padelean jokatzeko 20na euro ordaindu beharko ditu bikote bakoitzak, eta tenisean jokatzeko 15na euro ordaindu beharko dira. Elkarteak berak jarriko ditu pilotak. Txapelketak maiatzaren 6an hasiko dira, eta interesatuek maiatzaren 3ra arte dute izena emateko aukera. Izena emateko telefonoak: Padel txapelketa: 687 421 602 (Gorka) / 670 665 797 (Jabi). Tenis txapelketa: 696 577 872 (Luis) / 670 665 797 (Jabi).



Abel Hernandez, jazko tenis txapelduna.

### Debarroko Futbol7 txapelketa martxan da

Debarroko Futbol7 txapelketa antolatu dute Elgoibarko eta Eibar-ko Kirol Patronatuek. 1996an edo lehenago jaiotakoek hartu ahal izango dute parte txapelketan. Interesatuek maiatzaren 24ra arte eman dezakete izena, Elgoibarko zein Eibar-ko kiroldegietan. Talde bakoitzak 80 euro ordaindu beharko ditu. Hogei taldeko muga jarri dute, eta izenemate ordena hartuko dute kontuan. Taldeko ordezkarien bilera maiatzaren 24an egingo dute Eibar-ko Ipurua kiroldegian.

### Haur eta helduentzako patinaje ikastaroa

Familia guztiak elkarrekin egiteko moduko patinaje ikastaroa antolatu du Kirol Patronatuak. Hasiberrirentzako ikastaroa eguaztenetan izango da, 18:00etatik 19:00etara; eta hobekuntza ikastaroa martitzenetan, ordu berean. Batzuek zein besteek lau saio jasoko dituzte, IMHko kantxan. Ikastaroaren prezioa 30 eurokoa izango da familientzat, eta 25 eurokoa, berriz, banaka parte hartu nahi dutenentzat. Apirilaren 30ean amaituko da izena emateko epea.

### Kirol eskaintza berria, maiatzerako

Adin guztietarako ikastaroak prestatu ditu Kirol Patronatuak maiatzerako. 60 urtetik gorakoentzat oinez ibiltzeko saioak antolatu dituzte maiatzeko barixakuetarako. 10:00etarako Mintxetan agertzearekin nahikoa da parte hartzeko. 30 eta 50 urte artekoentzat, berriz, ariketa aerobikoak, abdominalak, luzapenak eta tonifikazioa lantzeko saioak izango dira aukeran. Azkenik, 16-30 urtekoei azterketa garaian kirola egiteko aukera eskainiko diete, spinning, pilates edo GAP eginez. Eskaintza honi buruzko informazio gehiago eskuratzeko Kiroldegira (943 744 115) edo Mintxetara (943 747 356) deitu daiteke.

### Sarai Sanchez Euskadiko judo txapelduna



Euskadiko judo txapelketa jokatu zuten domekan Errenteriko kiroldegian, eta 36 kiloz azpiko mailan Egokran klubeko Sarai Sanchezek irabazi zuen. Garaipen honi esker, Espaniako txapelketa jokatuko du judoka elgoibartarrak maiatzean Coruñan (Galizia).

### Imanol Alvarezek irabazi du jubenilen Aretxabaletako txirrindulari lasterketa



Sasoi onean dago Lagun Taldea elkarteko Imanol Alvarez txirrindularia, eta denboraldia ondo baino hobeto hasi du. Joan zen asteburuan Aretxabaletako lasterketa irabazi zuen, eta Oñatikoren eta Eskoriatzakoaren atzetik, denboraldian eskuratzen duen hirugarren garaipena izan da. Ion Astigarragak laugarren egin zuen, eta Juan Ocamica zazpigarrena izan zen.

# Euskadiko Txapelketa irabazi du Tecnifuellek, bigarren urtez segidan

Zilarrezko Ohorezko Mailara igotzeko aukera izango du

**E**uskadiko senior nesken eskubaloi txapelketa jokatu dute asteburuan Olaizaga Kiroldegian eta etxeko taldeak, Tecnifuellek, irabazi du txapelketa, bigarren urtez jarraian. Bi partida irabazi eta hirugarren bat berdindu zituzten: Lehen partidari, 28-13 hartu zuen mendean IES Construcciones Gasteiz taldea; bigarren jardunaldian, 29na berdindu zuten Kukulaga Etxebarriren kontra, eta azken jardunaldian 31-14 irabazi zioten Aiala Zarautz taldeari. Txapelketa irabazteaz gain, Tecnifuelle Elgoibar taldeko Nora Mugerzari eman zioten txapelketako atezain onenaren saria. Zilarrezko Ohorezko Mailara igotzeko kanporaketa jokatu beharko du orain. Garaipen honekin zazpi bider irabazi dute Euskadiko eskubaloi Txapelketa Aintzane Arizmendi eta Ane Urainek.



## Eskubaloi eguna eguaztenez

Sanlok eskuabaloia eguna antolatu du maiatzaren 1erako. Egun osoan zehar eskubaloiarekin zerikusia duten ekitaldiak egingo dituzte Kalegoen plazan. Izena emateko [sanlolatxo@gmail.com](mailto:sanlolatxo@gmail.com) helbidera idatzi behar da apirilaren 30erako.



## EMAITZAK

### FUTBOLA

Bermeo 0 – Haundi 0 (3. maila)  
Antzuola 1 – Elgoibar 1 (Erreg.)  
Elgoibar 1 – Behobia 1 (Jub.)  
Tolosa 0 – Elgoibar 1 (Kad. A)  
Elgoibar 2 – Añorga 2 (Kad. B)  
Arrasate 3 – Elgoibar 4 (Ohorezko inf.)  
Elgoibar 7 – Aretxabaleta 6 (Inf. Txiki)  
Elgoibar 5 – Arrasate 1 (Aleb.)

### ESKUBALOIA

Alcorta Elg. 21 – Soria 23 (Sen. mut.)  
Tecnifuelle Elg. 28 – IES 13 (Sen. neska.)  
Tecnifuelle Elg. 29 – Kukulaga 29 (Sen. neska.)  
Tecnifuelle Elg. 31 – Aiala 14 (Sen. neska.)  
Leizaran 15 – Gabaz Elg. 27 (Sen. mut.)  
Aloña Mendi 13 – Lauko Elg. 42 (Jub. neska.)  
Eibar 33 – Beristain Elg. 24 (Jub. mut.)  
Pulpo 25 – Ikus Elg. 25 (Kad. neska.)  
Aloña Mendi 35 – Txarriduna Elg. 30 (Kad. mut.)  
Pneumax Elg. 15 – Kari Berri 28 (Kad. mut.)  
Eibar 19 – Bankoa Elg. 24 (Inf. mut.)  
Deca Elg. 11 – Aloña Mendi 34 (Inf. mut.)  
Aloña Mendi 9 – Murgil Elg. 25 (Inf. neska.)  
Aterpe Elg. 13 – Cometel Elg. 18 (Inf. neska.)

### PILOTA

#### Deba Arroko txapelketa

Lagunak 22 – Bergara 19 (Nag.)  
Lagunak 21 – Sorraluze 22 (Jub.)  
**4<sup>o</sup> erdiko txapelketa**  
Lagunak 22 – Arrasate 14 (Nag.)  
Lazkao 22 – Lagunak 4 (Nag.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 27  
12:30 Elgoibar – Urola (Ohorezko inf.)  
17:00 Haundi – Anaitasuna (3. maila)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 27  
9:45 Cometel Elg. – Legazpi (Inf. neska.)  
11:00 Bankoa Elg. – Amenabar (Inf. mut.)  
12:15 Murgil Elg. – Bera Bera Egia (Inf. neska.)  
16:00 Ikus Elg. – Aloña mendi (Kad. neska.)  
17:30 Lauko Elg. – Pulpo (Jub. neska.)  
19:00 Beristain Elg. – Urola (Jub. mut.)  
Domeka, 28  
9:30 Aterpe Elg. – Aloña Mendi (Inf. neska.)  
10:45 Txarriduna Elg. – Ereintza (Kad. mut.)

### PILOTA

Barixakua, 26  
21:30 Lagunak – Bergara (Nag.)  
22:15 Lagunak – Eskoriatza (Nag.)

# Emakumeen Kontseilua



*Encarni Migales, Mari Jose Garmendia, Elena Alonso, Bittori Zabala, Izaskun Arozena, Marije Lazkano, Gloria Santiago, Itziar Ibabe eta Miren Arrate Arrieta.*

**Berdintasunaren Aldeko Elgoibarko Emakumeen Udal Kontseilua sortu du urteetan emakumeen parte-hartzea sustatzen eta emakumeen eskubideen defentsan jardun duen emakume talde batek. Emakumeon Asanbladako, Haizea emakume taldeko eta Elgoibarko Udaleko bina ordezkariaren artean adostu eta idatzi dituzte estatutuak, eta eguenean, udalbatzaren osoko bilkuraren babesa jasotzekoa zuten [Edizio hau ixteko ordurako, PPK ez beste guztiek alde-kotasuna agertu zieten].**

**E**lgoibarko emakumeen eta Udalaren arteko ordezkaritza, partaidetza eta elkarrizketa organoa da Berdintasunaren Aldeko Elgoibarko Emakumeen Udal Kontseilua, sustatzaileen esanetan. Luzea du izena, eta handia da hartu duten erronka: emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko bidea markatzea eta bide-erakusle izatea. Benetako berdintasuna. Askoren nahia, eta, jakina, denon egitekoa. Jakin badakite luzea dela bidea, baina eman dute aurreneko pausoa: ibilbide eta jite ezberdineko emakumeak batu dira. Kontseilua sortu beharra ikusi zutenetik, hilean behin batzen ibili dira Emakumeon Asanbladako Izaskun Arozena eta Itziar Ibabe, Haizea emakume taldeko Gloria Santiago eta Marije Lazkano eta Bittori Zabala Elgoibarko Berdintasun Saileko zinegotzia eta departamentu bereko Elena Alonso teknikaria, Udaletik. "Aho-batez zehaztu eta onartu ditugu helburuak eta estatutueta daude denak jasota", adierazi du Elena Alonso Elgoibarko Udaleko Berdintasun teknikariak.

Emakumeen elkarteek antolatzen dituzten jardueren eta Udalaren arteko koordinaziorako gune izateko bokazioz sortu dute Kontseilua, baina aurkezpen orrian argi esan dute aholkulari funtzioa beteko dutela eta euren erabakiek ez dutela Udala lotuko, azken batean aurrekontua berak kudeatzen duelako: "Organo hau ez da loteslea izango, eta aholkuak eta informazioa emango ditu udalerriko emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko bideratu behar diren herri-politiken inguruko erabakiak hartu ahal izateko". Horretarako, urtean gutxienez hamar aldiz batuko dira, baina ohiko bilerrez gain, ezohiko bilerak ere izango direla aurreikusitakoak. Andren parte-hartzea esparru guztietan sustatzeaz gain, beste ardurarik ere hartu dute euren gain: emakumeen mugimenduari orain arte eginiko lana aitortzea. Egitekoen zerrendan, baina, lehentasunak ere markatu dituzte Elena Alonso teknikariaren hitzetan: "Berdintasun plan berria aztertu eta protokolo batean genero indarkeria kasuak nola gizarteratu behar diren jasotzea".

## Funtzioak

Udal zerbitzuek eta politikek genero berdintasuna bermatzen dutela zainduko dute, eta horretarako, eskuz esku lan egingo dute Udalarekin. Aukera berdintasuna lortze aldera, udal jardueran planak bultzatuko dituzte, eta plan horien jarraipena ere egingo dute. Orain arteko Berdintasun Planaren balorazioa egingo dute, eta II. Berdintasun Planaren diseinuan ere parte hartuko dute, baita jabetza eskolaren eskaintza berria aukeratzen ere. Era berean, Kontseiluan parte hartzen ez duten herritar norbanakoek edo taldeek egindako proposamen, iradokizun edo ekarpenak ere jasoko dituzte, eta baita salaketak ere. Herritarren batek jarrera diskriminatzailea ikusiko balu nonbaiten edo norbaiten egitekoan, iku-

siko balu emakumeen kontrako irainik edo berdintasun printzipioaren bestelako urraketaren bat Emakumeen Kontseilura jo behar luke eta handik dagokion lekura bideratuko lituzkete salaketok.

Izenean bertan zehazten duten moduan, Kontseilua emakumeena da, eta horrenbestez ez dute gizona onartuko Kontseiluko kideztat. Era berean, alderdi politikoek ere ezingo dute Kontseiluan parte hartu. Aukera berdintasunaren alde diharduten elkarte edo taldeak, gaian sentiberatasun edo prestakuntza berezia duten emakumeak, sindikatu eta ordezkari emakumezkoak eta elkarte mistoetako ordezkari diren emakumeek bakarrik izan ahal dira Kontseiluko kide.



BITTORI ZABALA Emakumeen Kontseiluko kidea

## “Herrigintzan eta politikagintzan ere zeresan handia izan behar dute emakumeek”

### Zerk bultzatu zaituzte batzera?

2008-2011rako onartu eta 2012ra luzatu den Berdintasun Planean eta 2011-2015 Legealdi Planean ere jasota dago emakumeen partaidetza sustatzeko organo bat sortzea, eta oinarrian hori dago. Politikagintzan badaude zinegotzi emakumezkoak, baina hori ez da inondik inora nahikoa, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko. Ez da nahikoa lau urtean behin hauteskundeetako zerrendetan aurkezten diren %40 gutxienez emakumezkoak izatea. Herrigintzan eta politika publikoan ere zeresan handia izan behar dute emakumeek. Genero ikuspegia arlo guztietan txertatzeko eta emakumeen partaidetza eta agerikotasuna lantzeko sortu dugu Kontseilua. Elgoibarren bi emakume elkarte daude, Haizea eta Emakumeon Asanblada, eta herrian gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko orduan ezinbestekoa izan da haiek egin duten lana. Momentuz gu batu gara, bi elkarte horiek eta Udala, baina horrek ez du esan nahi interesa agertzen duten emakumeek parte hartzeko aukerarik izango ez dutenik.

**Funtzionamenduan eta genero ikuspegiaren gaia gizarteratzeko moduan ez duzue beti berdina jokatu orain Kontseiluan batu zaretenok. Are gehiago, esango nuke terminologian ere ez duzuela beti le-  
ro edo molde bera aukeratu.**

Beharbada ez, baina oinarriak adosteko orduan, behintzat, bat etorri gara. Sortuko dira, beharbada, gai zailagoak, eta bakoitzak izango du baterako edo besterako tendentzia, baina sortu ahal joango gara lantzen. Orain arte hitzartu ditugunak behintzat ahobatez onartutako kontuak izan dira. Erabateko elkarlana izan dugu.

**Zoritxarrez Elgoibarren ere izan dira genero indarkeria kasuak, eta halakoetan, berehala batu izan zarete beti. Erantzun azkarra eman behar denean beti hartzen dira arriskuak, baina, eta jakina, beti ez**

**da asmatzen. Protokolo baten beharra ere sumatu duzue.**

Bai, halakoak saihesteko sortu dugu protokoloa. Azkeneko hari batzuk lotzea falta zaigu oraindik, baina horixe izango da Emakumeen Kontseiluaren lehenengo produktua. Genero indarkeria kasu baten berri dugunean nola jokatu behar dugun arautuko dugu, zein erantzun eman eta gertatutakoa nola gizarteratu. Koordinazio faltagatik gertatu izan dira hutsegiteak ere, eta horiek saihestu nahi ditugu.

**Instituzioa zarete zuek biok [Bittori Zabalarekin batera Elena Alonso teknikaria zegoen elkarizketa egin zen unean]. Besteak gehiago dira herri ekimenetik sortutako taldeetan dabilzanak. Behar berdina sumatu dituzue?**

Baietz esango nuke. Estatutuak egiteko orduan ere beste herrietan dutena ikusi dugu. Guk ez dugu ezer asmatu. Estatutu asko kontrastatu ditugu, eta gutxienez bat adostu dugu, martxan hasi ahal lizateko. Orain artekoan dena borondate ona izan da. Hasteko, bi egiteko nagusi ditugu. Batetik, Berdintasun Plan berriaren diseinuan aholkulari lanak egin, eta bestetik, genero indarkeria kasuetarako protokoloa zehaztu.

**Izenetik bertatik argi dago emakumeen kontua dela hau. Benetako berdintasun hori lortzeko bidean gizonen ere badute zeresana, baina kanpoan laga dituzue. Beharbada batzuek ez dute ulertuko.**

Bai, baina guk argi izan dugu hasieratik. Hau ez da Berdintasun Kontseilua, hau Emakumeen Kontseilua da. Gizonen ez dute instituzioetan eta beste inon parte hartzeko eragozpenik, eta horrenbestez ez dute kontseilu bat sortzeko beharrik. Ez dauka zentzurik gizona egotea emakumezkoen kontseilu batean, ez behintzat kide gisa. Hori bai, gai jakin batzuk aztertzeko orduan haien beharra sentitzen badugu, arazorik gabe gonbidatuko ditugu batzarretara, aditu gisa.

# olatz ruiz de gordejuela



**“Sariak pizgarriak dira. Uste dut sari horiek gabe aspaldinuela biolina laga”**

**4 urterekin hasi zen biolina ikasten Olatz Ruiz de Gordejuela (Mendaro, 1997), eta 6 urterekin irten zen aurrenekoz jende aurrera. Hortik, dozenaka dira eman dituen kontzertuak eta jaso dituen sariak. Catalin Bucatarau eta Ana Bohigas irakasleen aholkuak jaso izan ditu, besteak beste, eta gaur egun Musikenen biolin irakaslearen Keiko Watayarekin ikasten du. 12 urte zituela, 15 urtez azpiko euskal biolin-jotzaile onena izendatu zuten, eta iaz, Ganbara Musikako lehen saria lortu zuen Euskal Herriko Musikari Gazteak lehiaketan. Azkeneko hiru urtean Euskadiko Orkestra Gazteko kontzertinoa da.**

**Noiz eta zeinek bultzatuta hasi zinen musikan?**

Ama musikaria da, eta aitari ere asko gustatzen zitzaion, eta etxeko giro horrek bultzatuta hasi nintzen, 4 urterekin. Amak aukeratu zituen guretzako instrumentuak. Unak (neba-arrebetan erdikoak) biolontxelo jotzen du, eta lñigok (hirurretan zaharrenak) pianoa. Musika eskola batean izena emateko umeegia nintzen ni, eta Debatik Elgoibarko Inazio Bereziartua musika eskolara etortzen hasi nintzen, ama hementxo irakaslea zelako. Piano eta biolontxelo irakasten zituena, eta biolin irakasleari komentatu zion ia banuen berarekin hasterik. Lehenengo, hori bai, amarekin ibili nintzen biolina zer zen ikasten. Gidari antzeko bat izan da guretzat beti ama. Gero, Maite Irustarekin hasi nintzen. 8 urte bete nituenean matrikulatu ninduten musika eskolan.

**Garbi dago amak ondo ezagutzen zaituztela. Asmatu zuen itxuran zuentzat aukeratu zituen instrumentuekin!**

Bai, bai. Berak dio izaerak asko esaten duela eta ni izaera gogorrekoa nintzenez biolinera apuntatu ninduen.

**Hiru neba-arrebetan gazteena zara zu, 15 urterekin. Elkarrekin ere aritu izan zarete. Nolako esperientzia izan da?**

Oso polita. Musikaz apur bat bagenekienean hasi ginen elkarrekin jotzen. Izugarri ondo pasatzen genuen. Egia da sekulako liskarrak ere izaten genituela tarteka, baina asko gozatzen genuen. Nik 8 urte nituela hasi ginen elkarrekin jotzen eta joan zen urtera arte kontzertu bat edo beste ere eman genituen elkarrekin. Iaz, baina, anaia zaharrena Bostonera joan zen (AEB) pianoan trebatzera, eta hor bukatu zen. Hala ere, itzultzen denean ekingo diogu berriro.

**Etxean horrenbeste musikari izanda, nola moldatzen zarete entseatzeko?**

Ondo. Etxean hiru ginen egunero entseatu behar genuen, eta gela bat intsonorizatu behar izan genuen, bizilagui-



nekiko errespetuz. Gure etxea oso txikia da, eta entseatzeko erabiltzen dugun gela hori da gelarik handiena, hortxe ematen ditugulako ordu gehien. Egunean lau-bost ordu eskaintzen dizkiot biolinari.

#### **Ikasketak, musika... Badakazu beste ezertarako denborarik?**

Ez askorik. Lehen gauza askoz gehiago egiten nituen, kirola-eta, baina orain ezinezkoa zait. Ikastola eta entseguen artean joaten zait eguna. Lagunekin egoteko denbora ere badut, jakina, baina lehen egiten nituen beste gauza batzuk orain ezin ditut egin. Hala ere, biolina jotzen izugarri disfrutatzen dut, eta horregatik, beharbada, ez zait horren gogorra egiten. Gustura nabilelako jarraitzen dut, bestela oso zaila izango litzateke.

## **“Aurten egingo ditut frogak Madrilerako, Londreserako eta Salzburgerako”**

#### **15 urte dituzu, baina zure egunerokoa ez da oso ohikoa zure adineko gazte batentzat. Nola bizi dute zure ingurukoek?**

Benetako lagunak, ondo. Ulertzen naute. Beste askok, aldiz, ez dute ulertzen horren gazte izanda biolinari horrenbeste ordu eskaintzea. Eta nik ulertzen diet. Etxez aldatzea, aitaren heriotza... Musikak asko lagundu dit bizitzan.

#### **Gasteizen kultur eskaintza handiagoa dago Deban baino. Muskarako lagungarri izan zaizu bizitzera hara joatea?**

Bai. Elgoibarko musika eskolako nire lehenengo irakasleak, Maitek, ikasten jarraitu nahi banuen beste irakasle batekin hasi behar nuela esan zien nire gurasoei eta beste irakasle hark ere ezin nintzela hemen gelditu ohartarazi zien gurasoei. Aitak, orduan, leku aldaketa eskatu zuen lanean, eta Gasteizera joan ginen bizitzera. Gasteizen biolineko ikasketa arautuak hasi nituen kontserbatorioan [Esther Conde irakasle-arekin]. Musikari gisa, izugarria izan zen Gasteizera joatea. Han askoz baliabide gehiago dauzkagu. Iritsi garen lekura iritsi bagara, neurri batean bada bizitzera Gasteizera joan ginelako. Gurasoei zor diet hori.

#### **Ni neu ez naiz lortu duzun guztitik zerbait nabarmentzeko gai. Zer azpimarratuko zenuke zuk?**

Ez dakit. Solista bezala irabazi ditudan azpimarratuko nituzke beharbada, azken batean hor baloratzen delako ondoen nire lana. Era berean, baina, orkestrako esperientzia izugarria izan da, Ameriketara egindako bidaia ez zait sekula ahaztuko. 12 urterekin Euskadiko Gazte Orkestran hartu ninduten. Kolonbian egon ginen, eta kontzertino [orkestra sinfonikoko lehen biolina] izendatu ninduten. Hiru denboraldiz izan naiz kontzertino.

#### **Euskadiko Gazte Orkestran ere gazteenetakoa izango zinen sasoi hartan, gazteena ez bazinen. Zer izan zen zuretzat?**

Bai, gazteena nintzen, baina horri ez diot aparteko garrantziarik ematen.

#### **13 urterekin 12 eta 15 urte arteko biolin-jotzaile onena izendatu zintuzten. Zer sentitzen da halako saria jasotzen denean?**

Ikaragarria da. Niretzat sariak pizgarriak izan dira. Nik uste dut sari horiek gabe aspaldi nuela laga biolina. Askotan iruditzen zaizu estankatuta zaudela, ez duzula aurrera egiten, eta halakoetan oso gogorra egiten da egunean lau-bost ordu honi eskaintzea.

#### **Non ikusten duzu zure burua etorkizunean?**

Euskal Herritik kanpora. Iruditzen zait hemen daukadan gutzia aprobetxatu dudala. Jakina, beti dago ikasteko gehiago, baina ezingo nioke askoz etekin handiagoa atera hemen dudanari. Kanpora joateko ordua iritsi zait. Aurten egingo ditut frogak Londreserako, Madrilerako eta Salzburgerako. Oposizio antzeko batzuk dira, eta hartzen banaute biolineko goi mailako ikasketak egingo ditut kanpoan. Atzerrian aukera handiagoa dago, musikari gehiago daude, eta nik uste dut aurrera egiteko oso garrantzitsua dela norbera baino hobeagoekin ibiltzea. Beti ikasiko duzu gehiago zu baino gehiago dakienarengandik. Nire anaia Unai ere Suitzara joan nahi du, eta Iñigo Bostonen dago. **Laister zaio etxea hustu zure amari.**

Bai, baina berak badaki hori. Hortarako hezi gaitu.

#### **Prestakuntza bereziren bat egiten diharduzu proba horietarako?**

Oso gogor ari naiz entseatzeko. Duela urtebete inguru hasi nintzen burubelarri. Ordubete pasatxoko programa menperatu behar duzu, baina frogak egunean bi minutu bakarrik ematen dizute zure onena erakusteko. Epaimahaiak agintzen dizu programa horretako zein zati jo, eta bi minutuan zer zaren erakutsi behar duzu. Dena hartzen dute kontuan: bai nola jotzen duzun, zein inpresio ematen diezun, lasai edo urduri ari zaren...

#### **Zuen amari irakurria da askotan harrituta uzten duzuela oholtzan erakusten duzuen paxadarekin.**

Hori ere ikasten da, baina ez pentsa erraza denik. Hala ere, bai, nahikoa lasai irtetzen naiz, ume-umetatik asko landu dugun kontua delako hori. Hala ere, piezarik zail bat jotzea baino zailagoa da askotan jende aurrera irtetzea. Urteetan egindako lana bost minutuan ebaluatzen du jendeak. Zuri begira daude denak, eta badakigu nolakoak garen: ondo egindakoaz ez da inor gogoratzen, baina gaizki egindakoez denak gogoratzen dira.

## **“Biolin ikasketak filosofia ikasketekin uztartu nahiko nituzke”**

#### **Onenen artean zabilta aspaldian. Esaiguzu badago gurean kontuan hartu beharreko beste biolin-jotzaile gazterik?**

Bai, bai. Musikari onak daude Euskal Herrian. Julen Zelaia, adibidez, oso gogoko dut. 18 urte ditu eta duela bi urte hartu zuten Madrigo Unibertsitatean. Ez dizut esango idoloztat daukadanik, baina gustatuko litzaidake haren pausoak jarraitzea.

#### **Iruditzen zait musikatik bizi nahiko zenukeela, baina zer beste ikasi nahiko zenuke?**

Biolin ikasketak filosofia ikasketekin uztartu nahiko nituzke. Ez dakit gai izango naizen, baina saiatuko naiz.

#### **Zein musika estilo gustatzen zaizu gehien?**

Musika klasikoa.



## ‘El desván del macho’ taldeak kontzertua eskainiko du gaur Kultur Etxeko sotoan

23:00etan hasiko da emanaldia

**S**inuosek antolatuta, kontzertua eskainiko du gaur gauean *El Desván del macho* musika talde arrasa-tearrak. 90eko hamarkadan sortu zuten taldea beste talde batzuetatik zetozen hainbat musikaririk.

Gaur egun hiru lagunek osatzen dute taldea: José Gregorio (ahotsa eta kitarra) eta Francisco Izkue (baxua) anaiek, eta Vicente Mijangos (bateria) *Simplicis* izena dauka taldearen laugarren diskoak, eta hori aurkeztuko dute.

80ko hamarkadako rock gogorra da nagusi euren abestietan, eta kritikoen arabera, musika oso landua egiten dute. Kontzertua 23:00etan izango da, Kultur Etxeko sotoan.



### ‘Lurra astinduz’ antzerkia, gaur

Lurra astinduz antzezlanaren eskainiko du gaur iluntzean Durangoko Karrika antzerki taldeak, Herriko Antzokian. Emakumea eta memoria historikoa egitasmoaren barruan antolatu dute antzerkia. Joxe Martin Urrutia ‘Txotxe’ elgoibartarrak idatzi eta zuzendu du obra, eta 1936ko altxamenduaren ondorengo egunak kontatzen dituzte. 20:30ean hasiko da ikuskizuna, eta sarrerak bost euro balio ditu.

### ‘Tipikoak eta arketipoak’ argazki erakusketa zabalduko dute gaur

Gorka Salmeron eta Oscar Pereira argazkilarien erakusketa antolatu du Ongarri argazkilari taldeak. Bi argazkilarien lanetan aurrez aurreko erretratuak aurki daitezke, gorputz erdikoak, hiru laurdenekoak edota luzera osokoak. Gorka Salmeronen kasuan, arinago eta askeago jarri dira modeloak argazkilariaren aurrean, eta agindutako moduan eta katuago Pereirarenean. Maiatzaren 11ra arte egongo da erakusketa zabalik, Kultur Etxean.

### Bertsogintza egitasmoko kurtso amaierako jaialdiak

Azken urteotan bezala, ahozketasuna lantzeko bertsogintza egitasmoak landu dituzte Ikastolan eta Herri Eskolan, Gipuzkoako Bertsotzale Elkartearen laguntzaz. Maiatzaren 6an eta 7an egingo dituzte kurtso amaierako jaialdiak, Herriko Antzokian, 18:30etik aurrera.

## Jasone Osoro eta Jon Eugi saritu dituzte Juul hauteskunde literarioetan

Jasone Osororen *Ezekiel* liburuak Juul hauteskunde literarioetako lehen saria jaso du laugarren urtez DBHko ikasleen artean. Kategoria berean, hau da, 12 eta 16 urteko ikasleen artean, hirugarren liburu gustukoena izan da Jon Eugiren *Piraten uhartea* liburua. 16 eta 18 urte bitartekoen artean, bestalde, Osororen *Tentazioak* liburua izan da hirugarren gustukoena. Joan den apirilaren 18an egin zituzten hauteskundeak eta 14.915 boto eman zituzten Euskal Herriko Ikastoletako ikasleek.



## Argazkigintza digitalari buruzko ikastaroak eskainiko ditu Ongarri argazkilaritza elkarteak

Argazkigintza digitalari buruzko hiru ikastaro antolatu ditu Ongarri argazkilaritza elkarteak, ‘Udaberri fotografikoa’ egitasmoaren barruan. Eduardo Arrillaga eta Esmeralda Zapparoli argazkilariak izango dira irakasleak. Ikastaro bakoitzak hiru orduko bi saio izango ditu, eta teoria eta praktika uztartuko dituzte. 0,0 argazkilaritza ikastaroaren barruan (maiatzak 4 eta 11) argazki kamera erabiltzen irakatsiko dute; street & travel ikastaroan (maiatzak 18 eta 25), berriz, argazkiak nola atera behar diren ikasteko aukera izango da, eta azkenik, digitalky talky (ekainak 1 eta 9) ikastaroan erretratuak nola gorde behar diren irakatsiko dute. Ikastaro bakoitzak 50 euro balio ditu. Zortzi lagunek muga jarri dute antolatzaileek. Informazio gehiago 656 716 034 telefonoan.

# Iñaki San Martinen argazki bat saritu dute Katalunian

Bilbon ateratako argazkia aurkeztu zuen Soartek



Kataluniako GaudiRfoto lehiaketan saritu dute Iñaki San Martin Soarteren erretratu bat. Bilbon ateratako argazki bat aurkeztu zuen Soartek Hiriko Paisaiak atalerako, eta zilarrezko domina eman diote. 60 herrialdetako 500 argazkilari baino gehiagok hartu zuten parte lehiaketan, eta epaimahaikideek 5.299 argazkiren artean aukeratu zituzten onenak. Saritutako lanak Interneten jarriko dituzte apirilaren 30etik aurrera [www.foto-artreus.com](http://www.foto-artreus.com) helbidean, eta udan erakusketa egingo dute Reusen bertan.

## Maiatzaren 3tik 5era ospatuko dituzte galiziarren jaiak



Galiza Etxeak *Semana das letras galegas* jaiak antolatu ditu maiatzeko lehen astebururako. Bihar anaiarteko bazkaria egingo dute Urazandiko elkartearen, baina festak maiatzaren 3an hasiko dira. Aurten Roberto Vidal Bolaño aktore eta idazle galiziarren omenez antolatu dituzte jaiak. Barixakuan 19:30ean egingo dute jaien inaugurazioa Aita Agirre plazan, eta domekara bitartean hainbat ekitaldi izango dira. Urtero bezala, musika eta dantzaz gain, Galiziako jaki tipikoak dastatzeko aukera ere egongo da. Egitarau guztia agendan ikus dezakezue.

## Landatze tailerra egingo dute bihar, azken zapatuko ferian

Azken zapatuko feria antolatu dute biharko. Goizean goizetik Elgoibarko baserrietako produktuak dastatzeko eta erosteko aukera izango da Kalebarren plazan, eta 11:00etatik aurrera, herriko harategietako produktuekin eginiko pintxoak eskainiko dituzte txosnan. Hilabete honetan Debabarrena areto futbol klubak kudeatuko du txosna, eta lortzen duten dirua kluba finantzatzeko erabiliko dute. Bestalde, 12:00etan kale kantariak irtengo dira Kalebarren plazatik. Hilabete honetako berrikuntza landaketa tailerra izango da. Debemenen laguntzaz, umeez landareak nola landatu behar diren ikasiko dute. Aita Agirre plazan, berriz, ganadu erakusketa egongo da.

## Arte eta literatura tailerrak antolatu ditu Haizeak

Haizea emakume taldeak arte eta literatura tailerrak antolatu ditu datorren asterako. Astelehenean, apirilak 29, *Ideologia e historia* hitzaldia eskainiko du Carmen Agirrek. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da ekitaldia, 17:00etatik aurrera. Martitzenean, berriz, literatura-aren txanda izango da. Javier Marias idazle ezagunaren *Los enamoramientos* liburua landuko dute Udal Liburutegian, 18:00etan hasita.

## Marikalanbreren ipuin kontaketa saioa

Atxutxiamakak antolatuta, Marikalanbrek ipuinak kontatuko dizkie gaur zortzi, haur hezkuntzako umeei. 3 urte-tik 5 urtera artekoentzako saioa izango da. 18:30ean hasiko da ekitaldia, Kultur Etxeko sotoan.

## 'Plazatik Gaztetxera' hilaren 4an, Mendaron

*Plazatik Gaztetxera* bertso txapelketako Mendaroko kanporaketa maiatzaren 4an izango da, gaztetxean. Aitzol Urain mendarorarrak Itziaroko Josu Urairekin osatuko du bikotea. 12:30ean trikipotea egingo dute, ondoren bazkaria eta bertso saioa 17:30ean hasiko da.

## LANA.....

### *Eskara*

• Emakumea lan bila: nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. Interna edo orduka.

☎ **632 054 894**

• Emakumea lan bila: nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. Asteazken goizez, eta asteburuetan egun osoz.

☎ **699 232 823**

• Emakumea lan bila: nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. Esperientziaduna.

☎ **690 925 929**

• Emakumea lanerako prest. Orduka ere bai.

☎ **627 768 684**

• Emakume arduratsua lan bila: nagusiak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Ospitalean ere bai.

☎ **625 895 460**

• Gizonezkoa lan bila: sukaldari laguntzaile, zerbitzari, banatzaile edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientziaduna.

☎ **690 861 846**

• Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Orduzko malgua.

☎ **602 068 313**

• Neska euskalduna eskaintzen da kontabilitate eta administrazio lanak egiteko. Orduka edo larunbat goizetan.

☎ **634 627 461**

• Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentzia onak. Papelak legez ditut.

☎ **606 118 964**

• Emakumea eskaintzen da garbiketara lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko. Orduka.

☎ **680 121 252**

• Mutil arduratsua zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. Edozein momentutan lanean hasteko prest. ☎ **692 332 871**

• Neska arduratsua lanerako prest: umeak eta nagusiak zaintzen esperientzia daukat. Garbiketara ere egiten ditut.

☎ **686 052 084**

• Neska lanerako prest: zerbitzari, nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldari laguntzaile, garbitzaile...

☎ **608 474 923**

### *Eskaintza*

• Elgoibarko taberna baterako zerbitzaria behar da, ekainetik irailera bitartean lan egiteko. Interesatuak curriculumak bidali ondorengo helbidera: [kamareroa@gmail.com](mailto:kamareroa@gmail.com)

## ETXEBIZITZAK.....

• Aukera, Basarten! Etxea salgai. 231.000 euro. Hiru logela, bi komun, garaje itxia eta trastelekua.

☎ **618 151 420**

• Valle Ramalesen (Kantabria) txaleta alokatzen dugu urte osoarako. Lau logela, egongela, bi komun. Heziz inguratuta.

☎ **653 733 457**

• Conilen (Cadiz) etxea alokatzen dut. Hondartza ondoan. Bi logela, egongela eta terraza itsasora begira.

☎ **653 733 457**

• Pisua hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren.

☎ **686 052 084**

## GARAJEAK.....

• Garaje itxia alokairuan ikastola ondoan.

☎ **669 916 148 / 943 531 648**

## KINTOAK.....

• 1953an jaiotakoek bazkaria egongo dute Sigma jatetxean ekainaren 8an. 12:00etan eskerrak emateko ospakizuna egongo dute Maalan, ondoren luntxa, eta 13:15ean aterako dute argazkia. Bazkaria 14:30ean izango da. Interesatuak 60 euro ordaindu behar dituzte Caja Ruraleko kontu honetan maiatzaren 28rako: 3008 0182 86 2662374814.

• 1958an jaiotako mendarorrek bazkaria egongo dute maiatzaren 25ean Landa jatetxean. Maiatzaren 10erako eman behar da izena Itsasertz arraindegian edo Morroskilo dendan.

• 1953ko soldadutza kintoek bazkaria egongo dute maiatzaren 4an Txarriduna jatetxean. 12:30ean meza egongo dute Maalan, hildako kintoen omezez, eta 14:30ean izango da bazkaria. Interesatuak Castrillejo tabako denda eman dezakete izena.

• 1943an jaiotakoek bazkaria egongo dute maiatzaren 4an, Sigma jatetxean. Meza izango dute 12:45ean; erretratua aterako dute 13:00etan, gero luntxa izango dute 14:00etan eta 14:30ean bazkalduko dute. Interesatuak 50 euro sartu behar dituzte Laboraleko kontu honetan, apirilaren 30erako: 3035 0007 27 0071126942.

• 1971n jaiotakoek bazkaria egongo dute maiatzaren 18an Txarridunan. Interesatuak 50 euro sartu behar dituzte Sabadell Guipuzcoanoko kontu korronte honetan, maiatzaren 8rako: 0081 4235 45 0001047409. 12:30ean batuko dira Maala tabernan.

## BESTELAKOAK.....

• Basarte Elkarteak hamar bazkide berrirrentzako lekua du. Baldintza Ekonomiko interesgarriak. Informazio gehiago:

☎ **943 742 815**

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



• Zorionak, **Unaxi**, igandean 5 urte! Muxu asko familiakoen, eta bereziki, Oierren partez.



• Zorionak, **Enara**, neska handi! Hilaren 1ean 4 urte! Patxo handi bat etxeko guztion partez, eta bereziki, Unaxen partez.



• Zorionak, **Nadet Martin**, maiatzaren 2an 5 urte beteko dituzulako. Muxu asko, amarenen partez.



• Zorionak, **Alain**, atzo 10 urte bete zenituelako. Muxu handi bat, etxekoen partez.



• Zorionak, **Amaia**, igandean 4 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Oinatz, Markel eta Goiuriren partez.



• Zorionak, **Sara**, zure lehenengo urtebetetzean. Familiako guztion partez.



• Zorionak, **Maialen**, 2 urte egin dituzulako. Familiako guztion partez, patxo handi bat.



• Zorionak, **Haitzart**, igandean 8 urte beteko dituzulako. Muxuak, gurasoen eta anai-arreba Laiene eta Zugatzen partez.



• Zorionak, **Maidier**, asteazkenean 4 urte bete zenituelako. Muxu asko, familiakoen eta bereziki Asiertxoren partez.



• Zorionak, **Galder**, 7 urteak ondo ospatuta pasatu dira, ezta? 101 patxo.



• Zorionak, **piratxol**, Dagoeneko 5 urte! Ondo pasatu zure egunean, bereziki Kaieten partez.



• Zorionak, **Ibai**, maiatzaren 2an 4 urte! Patxo handi bat familiako guztien partez, eta bereziki Beñaten partez. Ondo pasa!



• Zein ondo pasatu genuen zure urtebetetze egunean, **Xabat**! Hiru belarri tirakada anaia Manexen partez. Segi pedalei ematen.



• Zorionak, **Beñat**, 7 urte egin dituzulako. Etxekoen, eta bereziki, Xabiren partez.



• Zorionak, **Maren**! astelohenean 8 urte beteko dituzulako. Ondo pasatu eta patxo handi bat etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Nerea**, maiatzaren 1ean 3 urte beteko dituzulako. Muxu asko, familiakoen partez.


#### AGURREN ATALEKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

#### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:


Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.



**Apirilak 29, astlehena,**  
**Ping-Pong txapelketa**  
**ludotekan.**

**Hastear dago Izarraitzeko konkista!**  
**Izenematea**  
**maiatzaren 2tik 31ra gaztelekuan.**



## 26 barixakua

### *Erakusketa*

18:30 Argazki erakusketa  
Gorka Salmeron eta Oscar  
Pereira argazkilarien lanak jarriko  
dituzte ikusgai Kultur Etxean,  
maiatzaren 11ra arte.

### *Antzerkia*

20:30 'Lurra astinduz'  
Durangoko Karrika antzerki  
eskolak aurkeztuko du  
antzezlan, Herriko Antzokian.

### *Musika*

23:00 Kontzertua  
*Desván del macho* taldearen  
kontzertua antolatu du  
Sinusek. Kultur Etxeko  
sotoan.

## 27 zapatua

### *Azoka*

9:00 Azken zapatuko feria  
Kalebarren eta Nafarroa Plazan.  
Eguerdian Kale Kantariak irtingo  
dira kantuan.

### *Kirola*

11:30 Atxutxiantxixika  
Atxutxiamaiak antolatuta, 3 eta  
5 urte arteko umeentzat.  
Kalegoen plazan.

## 29 astelehena

### *Hitzaldia*

17:00 'Ideologia eta historia'  
Haizeak antolatuta, Carmen  
Agirrek emango du hitzaldia,  
Kultur Etxean.

## 30 martitzena

### *Literatura*

18:00 'Los enamoramientos'  
Javier Marias idazlearen liburua  
landuko dute, Udal Liburutegian.

## 1 eguaztena

### *Kirola*

10:00 Eskubaloi eguna  
Sanlok antolatuta, Kalegoen  
plazan.

## 3 barixakua

### *Aisialdia*

18:00 Marikalanbreren ipuin  
kontaketa  
3tik 5 urtera artekoentzat, Kultur  
Etxeko sotoan.

### *Antzerkia*

22:00 'Ikuskizun eszenikoan  
agerraldia'  
Taupadak aurkeztuko du,  
Herriko Antzokian.

## SEMANA DAS LETRAS GALEGAS (Aita Agirre plazan)

### 27 ZAPATUA

14:30 Anaiarteko bazkaria  
Galiza Etxean.

### 3 BARIXAKUA

19:30 Inaugurazioa  
Ondoren, muskuiuen eta  
Galizako jaki tipikoen dastatzea  
20:00 Dantzaldia  
Emperadores orkestrarekin.  
23:00 Dantzaldia  
Emperadores orkestrarekin.

### 4 ZAPATUA

11:00 Galiziako jaki tipikoen  
dastatzea  
12:00 Espalladorio talde  
galizarraren kalejira  
13:00 Bermut-dantzaldia  
18:30 Dantza saioa  
Haritz dantza taldea eta

Laudioko Espalladorio taldeak.  
Kalegoen plazan.

20:00 Galiziako jaki tipikoen  
dastatzea  
20:00 Dantzaldia  
Emperadores orkestrarekin.  
23:00 Dantzaldia  
Emperadores orkestrarekin.

### 5 DOMEKA

11:00 Galiziako jaki tipikoen  
dastatzea  
11:30 Meza, Santurtziko Corxa  
Airiños taldearen ekitaldiarekin.  
Segidan, kalejira egingo dute.  
14:30 Bazkaria  
Galiza Etxean.



## ZINEA

### 'Anna Karenina'

27, zapatua:  
19:00/22:15  
28, domeka: 19:00  
29, astelehena: 21:30

### 'Los últimos días'

4, zapatua: 19:00/22:15  
5, domeka: 19:00  
6, astelehena: 21:30

### 'Jack el cazagigantes'

28, domeka: 16:30

### 'Oz: un mundo de fantasía'

5, domeka: 16:30

### 'Grandes esperanzas'

1, eguaztena: 19:00  
2, eguena: 21:30



### OKINDEGIA

28 domeka:  
**FOTERO**

1 eguaztena:  
**EIZAGIRRE**

3 domeka:  
**FOTERO**



### BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

#### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

#### Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel: 943 751 638

#### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)  
Tel: 943 751 384

### GUARDIAK

#### Egunez

9:00 - 22:00

26	Ibañez
27	Garitaonandia
28	Garitaonandia
29	Etxeberria
30	Fernandez
1	Yudego
2	Zabaleta
3	Yudego

#### Gauetz

22:00 - 9:00

Barrenetxea	4
Garitaonandia	5
Garitaonandia	6
Etxeberria	7
Garitaonandia	8
Yudego	9
Etxeberria	10
Yudego	

#### Egunez

9:00 - 22:00

Ibañez	4
Goizez: Etxeb.	5
Ibañez	6
Yudego	7
Etxeberria	8
Fernandez	9
Garitaonandia	10
Zabaleta	

#### Gauetz

22:00 - 9:00

Etxeberria	4
Yudego	5
Etxeberria	6
Yudego	7
Etxeberria	8
Yudego	9
Garitaonandia	10
Barrenetxea	

AN  
INTERIORES  
Kids

haur eta haurtxoentzako gune zoriontsuak

Madalen gaudete, Pedro Muguruza etorbidea, 5. Hf. 943743245



www.an-interiores.com



ALTZARIAK

poltsiko guztietarako prezioak



HAUR-ZAINTZA

naturala

GAZTEAK • HAURTXOAK • ESTUDIOIA • PROIEKTUAK • DEKORAZIOA



kotxi eta bamboozko museinak



Haurtxoak portatuzeko fular elastikoak



Mobilia ergonomikoak



Kristalezko biberoi eta botilak



www.haurreskolak.net

**Matrikulazio epea zabalik**

**Izenematea maiatzaren 2tik 13ra**

**Elgoibarko Haurreskola  
943 742 141**

# Laster ezkontza gehigarria

Publizitatea egin nahi baduzu jarri gurekin harremanetan

**B**

BARREN

**943 744 112**

**barren.publi@elgoibarkoizarra.com**



# Elgoibar Arreiture BHI 2013-2014 ikasturtea



Elgoibar Arreiture BHI  
Arreiture 2  
Tel.: 943 748 397  
E-posta: 013431aa@hezkuntza.net  
www.elgoibarbhi.net

**BATXILEREKO ESKAINITZA**

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Osasun zientziak

Zientzia eta teknika

HUMANITATEAK ETA

GIZARTE ZIENTZIAK

Gizarte zientziak

Humanitateak

**AURREMATRIKULAKO DATAK:**

**MAIATZAREN 27IK 14RA**

Gurasoentzako bilera irekia Ezenarroko aretoan:

maiatzaren 2an, arratsaldeko 18:30ean

Ikaistentzako ate irekiak egun berean arratsaldeko 17:00etan

